

## Marrazki koordinatua



**Dinamika-mota:** Sormena

**Zer lantzen da:** Sormena, elkarlana

**Adina:** Adin guztiak

**Iraupena:** 20 minutu

**Partaide kopurua:** Talde handia

**Materiala:**

Orriak, arkatzak, boligrafoak eta margoak

### Azalpena:

Borobilean eserita, bakoitzak orri bat eta idazteko zerbait izan behar du. Borobilaren erdian margoak eta beste zenbait material utzi daitezke. Ez dugu azalpen handirik emango. Gidariak hitza hartuta, honelako zerbait esan dezake: "Irudi geometriko bat aukeratuko dut eta esango dizuet zuek irudi hori nolakoa, non eta nola marraztu. Ez hitzik egin eta ez begiratu besteei, zuek lasai marraztu esaten dizuedana; adibidez: borobil txiki bat nahi dut gitea orriaren ezkerreko aldean."

Bakoitzak bere orrian agindutakoa marraztu ondoren, gure ezkerrekoari emango diogu egindako marrazkia. Aginduak txandaka emango dira. Bigarrena, lehenengoa eman duenaren eskuinekoak. Eta beti, agindutakoa marraztu ondoren, ezkerrekoari pasatu. Horrela, 15-20 minutuko saioa egingo dugu.

Bukaeran, nola sentitu diren, nolako marrazkiak atera diren... komentatuko dugu talde osoan.

### Oharra:

# Dinamikak

Taldean egiten baldin bada, buelta bat egitea egokia da; oso ondo doala-eta jarraitu nahi baldin badute, bi bira. Taldean egiteko, A4 tamainako orriaren ordean A3koa izan daiteke aproposa.